



**Bilboko  
Elizbarrutia**  
DIÓCESIS DE BILBAO

**JESUS JAIO  
ZAIGU**

**ERANSKINA**  
**ERAGILE, KATEKISTA AMA ETA AITENTZAT**

**Delegación de Anuncio y Catequesis**  
**Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**

# ERANSKINA ERAGILE, KATEKISTA AMA ETA AITENTZAT

## Jesus Eguberri-egunez jaiotzen da<sup>1</sup>



Jesusen jaiotzak Jainkoa gure bizitzetan agertzen dela adierazten du. Baina Jainkoaren agerpen hori ez da "gure estilora" (prentsaurrekoak, agerraldiak komunikabide guztietan, argiz beteriko kaleak, otorduak eta egundoko opariak, e.a.), apaltasun itzelaz baizik (jende apala, publizitate gutxi, bizipen bizi-biziak bihotzean...).

Jainkoaren Semea gizon, gizaki egiten da, eta gure artean jartzen du bizilekua. Horixe da Eguberrietan ospatzen duguna. Eguberriak umekeria bihurtzea saihestu behar dugu (haur egindako Jainkoa, korta batean jaiotz, hotzez dardarka, artzainak, e.a.,...). Eguberria, egundoko garrantzia duen kristau gertaera da, Jainkoaren eta gure arteko banantzea ezabatu egiten da. Bidelagun dugu, geurekin doa gure banan-banako eta elkarteko historiaren bidetik. Bera guregan dago eta gu Berarengan gaude. Gizakiarekiko elkertasun da. Gertaera horrek Jainkoa gutaz arduratzen dela, gure giza historian lagun egin eta bere jainkozko bizitzan txertatu nahi gaituela adierazten du.

Judea erromatar probintzian Tiberio Zesarren garaian sortu zen Jesus juduaren jaiotza datu eztabaida ezina da. Beste kontu bat da gertaera hau fedetik nola ulertzen den: haur hori, haur baino gehiago izatea eta berarengan era harrigarrian Jainkoa agertzea (gizatasuna eta jainkotasuna batzen dira berarengan), Jainkoa haur hori historia bide berrietatik zuzentzeko izendatu izana, haur hori fede-kontua da. Jesusen jaiotzari lotutako beste hainbat datu ez du hainbesteko garrantzirik, federako esanahi oso baliotsua badute ere: Belenen jaiotzea, ostatuetan berentzat lekurik ez izatea, artzainak eta magoak izatea berria jakiten lehenak...

Ez dakigu datu guzti horiek historikoak diren, gogoan izan behar dugulako beti Ebanjelioak ez direla kontaketa historikoak, benetako adieran, gertaera historikoetan oinarritutako katekesiak baizik. Horregatik, hainbat gertaeraren kontaketa dela-eta, historikoak diren ala ez egiaztatu ez ezik, beren adierazpenekin zer esan nahi izan duten galdetu behar diogu geure buruari.

- Berarentzat lekurik ez izatea, ohartarazpen oso serioa da. Gaur egun be, ez baitago lekurik Berentzat hainbat bihotzetan; Jainkoaren egitasmoa, Jesus eta bere Berri Ona ez direla onartzen adierazten du. Hasieratik, Jesusek zailtasunak aurkitu zituela diote kontaketa ebanjelikoek.
- Korta batean jaiotzea. Juduen etxeetan, batez ere herri eta herrixketan, familia etxearen goialdean bizi zen eta korta behean zegoen; etxeko lekurik epelena zen, jakina, eta lekurik egokiena erditzeko. Jainkoa makaltasunean, pobretasunean, bazterketan agertzen zaigu.

- Artzainak berria jakiten lehenak izatea, alde batetik, normala zen, artzain-ingurua zelako eta makina bat artzain zegoelako leku haietan. Beste alde batetik, artzainek ez zuten ospe onik, artzaintza apalenen ogibidea zen eta, arlo hori nahiko baztertuta zeukaten. Beraz, artzainek beste inork baino lehen berria jakiteak argi eta garbi erakusten digu Jainkoak baztertuak lehenesten zituela, horiek zituela gustukoan.

- Magoei dagokienez, Jainkoaren bila diharduen mundu ez judua irudikatzen dute. Bere ebanjelioa Siria inguruko juduei idazten dien San Mateok Jesusen salbaziozko eskaintzaren unibertsaltasuna ikusarazi nahi die eta horregatik jartzen ditu magoak Jainkoaren bila ari direnen eta Jainkoa aurkitzen dutenen artean. Haurren oinetan uzten dituzten opariak Jainkoarengan gure bizitzak bete ditzakeen benetako oparia ikusi dutenen poztasuna adierazten dute.



<sup>1</sup> Katekesirako Iruña eta Tuteran, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietako Ordezkaritza eta Idazkaritzek 2010ean argitaratutako 'Esnatu!' 1. mailarako gida pedagogikoko 3. gaitik hartuta.

## **HAINBAT OHAR KRISTAU ELKARTEARI LOTZEKO**

Eguberri aldia aukerakoa da familiaren eta kristau elkartearen arteko lotura ahalbideratu eta estutzeko. Egun horietan, ohikoa da PBetan askotariko eduki eta eratako jarduera eta batzarrak antolatzea eta erraza izaten da familiei deialdia egitea eta, bide batez, elkarte alderdia sendotzea. Hona hemen aukera eta proposamen batzuk:

- Katekesiko saioa eta Eguberrietako elkarte ospakizuna (familia Eukaristia) lotu: katekesiko saioan ospakizuneko irakurgairen bat edo zeinuren bat prestatu, abestiak ikasi, katekesian prestatutako zerbait ospakizunean aurkeztu...
- Eguberri aldiko familia topaketa: Eguberri aldian, familiak elkartu eta kristau elkarteko beste kide batzuk ere gonbidatu (Gabon-kanten jaialdia edo beste era bateko topaketaren bat).
- Caritasen Eguberrietako kanpaina parte hartu: Caritasek Eguberri aldian sustatzen duen kanpaina, aukera ona izan daiteke familiak kristau elkartearen karitatezko jardueraren batean parte hartzera deitzeko.

### **Jainkoarekin hitz egiteko tartetxoa**

**Irakats iezaguzu, Aita,  
guregan apaltasunean, eta ez handitasunean,  
haize gozoan, eta ez urakan-haizean,  
txingarrean eta ez gar iragankorrean,  
entzutean eta ez hitzontzikerian,  
egite isilean eta ez aktibismoan,  
neurritasunean eta ez aberastasunean  
agertzen zarela ikusten.**

**Bihotzera hitz egiten diguzu,  
bihotzak, gero, gure buru, esku eta oinak mugi ditzan.  
Ireki gure entzumena zure hitzetara,  
Irakats iezaguzu Zu manipulatu gabe entzuten  
eta emaiguzu indarra  
zure mezua koherentziaz bizitzeko. Amen.**

**Entzuteko, egin  
klik irudian  
"Desde abajo"**

